

## XX. MENDEAREN HASIERA

Hogeigarren mendearren hasiera ametsez eta egitasmoz aberatsa izan zen. Hortxe hezurmamitu ziren alderdi abertzale bat, Emakume Abertzale Batza, Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia, euskal aldizkariak. Egitasmo eta ekinbide horretan txertatu zen emakumea ere: herrigintzan, hezkuntzan, antzerkigintzan, idazletzan eta abarretan.

Besteak beste, *Euskal-Esnalea* eta *Euskalerrriaren alde* aldizkariak izan ziren, beren literatur lehiaketa eta hitzaldien bidez, emakumea idaztera erakarri zutenak.

Egia esan, bultzada horri esker emakume idazleen zerrenda asko luzatu zen euskal literaturan: Petra Belaustegi, Maria Artiñano, Rosario Artola, Errosa eta Basilia Bustintza, Katalina Elizegi, Sorne Unzueta, Maria Dolores Elizondo, Inazia Pradere Arruti, Tene Muxika, Maria Dolores Agirre, Maria Etxabe, Rufina Azkue, Joakina Garaialde, Julia Gabilondo,

Maddi Ariztia, Maria Pilar Lekuona, Josefa Martiarena, Juiene Azpeitia, Julia Fernandez Zabaleta eta abar.

Berandukoa da euskal literatura. Eta urria. Gizonezkoena gehienbat. Elizgizonena, neurri handian. "Urria, berankorra, ñaño-antzekoa izateaz landa, badu beste makur nabarmena: txit mugatua izan dela, erlijio edo hobeki eliz-arazoetara iraulia gehienbat luzaroko mendetan" idatzi zuen Koldo Mitxelenak *Klasikoak* izeneko bildumaren aurkezpenean.

Euskal emakume idazleak, 1908-1936.



2

Izan ere, Unibertsitaterik ezean, apaizgaitegi eta frailetegietatik kanpora ez zen ikasketa haundirik egiteko aukerarik ere. Emakumezkoentzat, berriz, ia debekaturik zen eskola. Idazten ikastea, behintzat, kaltegarritzat jotzen zen. Etxeko lanak egotzi zizkion gizarteak emakumeari. Eta horretan bakarrik ere bazuen esku bete lan.

Eskolatik urrun eduki zen emakumeak ez zuen, beraz, literaturan eta idazletzan sarbiderik. Ez da harritzekoa, noski, Erdi Aroko bertsolari, erostari, hiletari eta olerkari haiez gainera, hau da, Ozetako Santxa Otxoa, Alosko Usoa, Lasturko Milia, Santxa Hortiz eta abarretaz gainera, emakumezkoen artean ez agertzea euskal idazleen artean.



Etxepare, Leizarraga, Axular, Larramendi, Kardaberaz, Mendiburu eta abarren garaietan ez da emakume idazlerik sortzen. Hamaseigarren, hamazazpigarren eta hemezortzigarren mendeek ez zuten eman emakumezko idazlerik. Hori bai, emakumezko bat izan zen, 1571ean, Biblia euskaratzeko eta argitaratzeko Leizarragari dirua ordaindu zion lehena: Albretoko Joana erregina.

Idazleetan, ordea, hemeretzigarren mendearen hasieran agertzen zaigu izar bakarra: Bizenta Mogel Elgezabal. Hain zuzen ere, 1804an argitaratu zuen *Ipui onac* liburua, 22 urte zituela. Juan Antonio Mogel osaba apaizari esker ikasia baitzen gaztelania eta latina. Mendearen bukaeran, berriz, ezezaguna den Frantziska Inazia Arrue agertzen da. Hain zuzen, "Euskaldunen bikaintasuna" idatzi zuen 1887an.

Julian Teliatxearen pinturak, ederki islatzen ditu garai hartako emakumearen eginkizunak eta lanbideak.

## EMEKI-EMEKI

Hogeigarren mendearren hasieran hasten da emakume idazleen taldea Antonio Abadiaren euskal jaietako sariaketei eta *Euskal-Esnalea* eta *Euskalerrriaren alde* aldizkarien literatur lehiaketei eta Emakume Abertzale Batzaren bultzadari esker. Bide luzea eta aldapatsua igo beharra baitzeukan emakumeak.

Izan ere, emakumezkorik gabe sortu zen Euskaltzaindia. 75 urte igaro dira lehen emakume euskaltzaina aukeratzeko. Hain zuzen, 1992ko apirilaren 24an hautatu zen Miren Azkarate, Joxemiel Barandiaranek hutsik utzitako aulkia bete zezan.

3



Eulalia Abaitua (1853-1943) bilbotarrak egindako argazkien artean ugari dira andrezkoak motibotzat hartzen dutenak. Argazkilaria bera, emakumea izateaz gain, argazkigintzan aitzindari goragarria dugu.

Oñatin, bestalde, 1918an Eusko Ikaskuntzak egin zuen lehen biltzarrean, ez da zuzendaritzarako emakumerik hartzen. Hizlari ere bakarra agertzen da, beste berrogeita bat gizona koren artean: Adelina Mendez de la Torre. Iruñean 1920an egin zuen bigarren biltzarrean Maria de Maeztu eta Ana Mari Sanz mintzatu ziren hezkuntzari buruz.

*Euskal-Esnalea* aldizkariak antolatu zituen hitzaldietan, berriz, Maria Etxabe, Maddi Ariztia eta Julia Fernandez Zabaleta bakarrik azaltzen dira. Hain zuzen, Donostiako Novedades antzokian mintzatu zen Maria Etxabe 1930eko apirilaren 27an. "Zorionaren iturria gizonak non du?" argitu nahi izan zuen. "Emakumien Etorbizuna" aztertu zuen 1926an Julia

Fernandez Zabaletak. Maddi Ariztiak, berriz, "Euskal Etxe Zaharrak", 1933an.

Emakumezkoek argitaratutako libururik ere gutxi da. 1907tik 1936ra bitartean, urtero hamarren bat liburu argitaratzen ziren 30 urteko aldi hartan, emakumezkoenak hiruzpalau besterik ez dira: Katalina Elizegiren *Garbiñe* (1916) eta *Loreti* (1918) eta Julene Azpeitiaren *Osasuna, merketza ta yanaritzaz* (1922).

Eusko Ikaskuntzaren RIEV (*Revista Intemacional de Estudios Vascos*) gerraurreko aldizkarian, 1907tik 1936ra, ez dut emakumezko baten lanik aurkitu. Ezta *Nafarroako Revista*

Bizenta Mogel eta Elgezabal (1782-1854)  
Lehen emakume idazlea. Hemeratzigarren  
mendearen hasierako izar bakarra.



Joana Albretekoa (1528-1572)  
Nafarroako erreginak Joannes  
Leizarragari Testamentu Berriaren  
euskarazko itzulpena egiteko  
agindu zion.



*Euskara* (1878-1883) izenekoan ere. *Euskal-Esnalea* eta *Euskalerrriaren alde* aldizkarietan agertzen dira, sarri antzean, emakumezkoek sinaturiko lanak.

Emakumezkoa indartsu ari zen herrigintzan eta euskalgintzan. Giro haren lekuko eta seinale da 1930eko udan Donostian burutu zen Emakumearen Omenaldia Euskarari.

## EUSKAL-ESNALEA ETA EUSKALERRIAREN ALDE

*Euskal-Esnalea* 1908an jaio zen "euskara zabaltzeko, umeengan euskararenganako maitasuna pizteko". Erabiltzen zuen euskara ere baserritarrek ere irakurtzeko modukoa nahi zuen. Horretarako, berriz, ipuinak idaztera eta argitaratzera bultzatu nahi zituen idazleak. Euskaraz idatziak eta sei orrialdekoak eskatzen zituen. Lehenengoari, 50 pezetako saria eskaintzen zion; bigarrenari, berriz, 30 pezetakoa. 1918tik aurrera Euskalerrriaren alde aldizkariaren gehigarri gisa argitaratu zen *Euskal-Esnalea*.

Euskal jaiak, literatur sariketak, hitzaldiak eta abar antolatu zituen

euskara sustatzeko eta indartzeko. Eta aldizkarian bertan argitaratzen zituen saritutako lanak, hitzaldiak, artikuluak, antzerkiak, liburuskak eta abar. Orixe, Lizardi, Emeterio Arrese, Txomin Agirre, Sebero Altube, Gregorio Muxika, Karmelo Etxegarai, Azkue, Toribio Alzaga, Lekuona, Barandiaran bezalako idazleak bereganatu zituen.

Aldizkariak gainera, *Esku-Egundiya* ere argitaratzen zuen. "Polita eta guztiz ederki ta txukun egiña omen da. (... ) Asi udaberritik eta urtezarreraño euskeraz idatziya. Itzneurtuz, kontuz, igarkizunez, oarkeraz eta esaera zarrez betia. Barabak, bijiliyak, ilberriyak, eguzkiyaren sartuaterak eta gañerako gauzak noiz diran jartzen ditubena. Euskaldun batek ere ez luke gelditu bear egundi au erosi gabe" famatzen du 1908ko azaroko *Euskal-Esnalea* aldizkariak.

Euskal-Erria aldizkaria 1918an hil zen. Baina ordurako emana zuen, 1911.urtean, kimu berria: *Euskalerrriaren alde*. Joxemiel Barandiaranek zioen bezala, "Euskal

ezikera ikasi, berotu eta indartu: auxe zen bere egitekoa". Horretarako lau gizon ospetsuren itzalean jaio zen: Arturo Kan6pion, Julio Urkixo, Txomin Agirre eta Karmelo Etxegarairen ardurapean. Zuzendaritza eta artezkaritza, berriz, Gregorio Muxikaren gain utzi zuten. Eta hil ere, zoritxarrez, Gregorio Muxikarekin batera hil zen, 1931ean.

## ELIZGIZONEN ERAGINA

Euskaraz idazteko zerbait ikasia izan behar da, jakina. Ezeren eskolarik ez duenak nekez idatz dezake. Ez da harrizkoa ere eta, euskaraz idazten hasten diren emakume batzuk maixtra karrera eginak dira: Julene Azpeitia, Katalina Elizegi, Rufina Azkue, Julia Fernandez Zabaleta, Elbira Zipitria, Maria Dolores Agirre eta abar.

Bada, ordea, elizgizonen baten laguntza izan zezakeenik ere. Hala izan zuen Bizenta Mogeleg. Gerora agertzen direnek ere ez ote zuten izan? Laurent Diharasari apaiz idazlearen iloba da Maddi Ariztia; Inazia Pradere Arruti, Blas apaiz idazlearen arreba; Maria Pilar

Lekuona, Manuel eta Martin apaizen arreba; Rufina Azkuek bi anaia zituen erlijiosoak, bata apaiza eta bestea jesuita.

Andima Ibiñagabeitiari buruz Pako Sudepek ondu duen lanean ere gauza bera agertzen da: "Andimaren arreba Hiltruda ezkongeak Jaungoiko Zale Bazkunak Bilbon ateratzen zuen *Ekin* aldizkarian herriko kronikak idatzi zituen 1932-34 bitartean 'lilierreka' izengoitipean. Badirudi, artikulua guztiak ez zirela berak idatziak; batzuetan herriko apaizak idatzi eta gero 'lilierreka'-k sinatzen zituela".

Koldo Mitxelenak berak ere ez al zuen, bada, behin eta berriz aitortzen Martin Lekuona apaizari, Manuelen anaiari, zion zorra? Hark lagundu baitzion euskara idatzian eta euskal literaturan lehen urratsak egiten. Hari



Euzko Ikaskuntza Elkarteko Zuzendaritza ez da emakume bat bera ere agertzen.

esker eskuratu baitzuen Lauaxetaren *Arrats* beran liburua ere.

Ez da erraz emakume idazle hauek zenbaterainoko laguntza izan zuten jakitea. Ezta izan zutenik ere, Baina bakarren batek laguntza baino zerbait gehiago izan ote zuen susmorik ere bada: Inazia Pradere Arrutik, adibidez. Izan ere, euskarak ez ezik, gaiek berek ere Blas anaiarenak ote diren susmoa sortzen dute.

Bestalde, hasiberrian norik ez du norbaiten eskua izan ohi, idatzi duena

zuzentzeko eta osatzeko? Etxean edo inguruan beti behar da horretaratuko zaituen giroa edo laguntza. Etxean aurki zezaketen giro hori Rosario Artolak eta Errosa eta Basilia Bustintza ahizpek. Beste askok batzokian edo Emakume Abertzale Batzan aurki zezakeen: Tene Muxika, Maria Etxabe, Sorne Unzueta eta abarrek. Donostiako Euskal Izkera eta Iztunde Ikastolan aurkitu zuenik ere izan zen, noski: Maria Dolores Agirre, Katariñe Eleizegi, Pepita Aramendi eta abarrek.



Euskal-Esnalea, Euskal Erria, Euskalerriaren alde.

Frantziako legearen arabera senarraren deituraz ezagutzen da emaztea. Marie Diharassarri ere, 23 urteko neska gaztea, Ariztia bilakatu zen ezkontza egunean, 1910ean, Baztango Pedro Ariztiarekin elkartu zenez.

Marie Diharassarri, *Maddi Ariztia*, Sarako Lehetxipian jaio zen 1887ko uztailaren 28an. Maddik, jakina, etxean izan zuen euskara lantzeko aukera, Laurent Diharassarri osaba apaizari esker, euskarazko liburu askoren idazlea zenez.

Errepublikaren kontrakoa zelako, agintariei men egitearren, Kanbotik Ortzaizera bidali zuen apezpikuak, 42 urte zituela. Erromara jo zuen gotzainaren erabakiaren kontra. Baina Frantziako egoera politikoa halakoxea zenez, Erroma ez zen gotzainaren erabakia ezabatzeraz ausartu. Apaizaren jokabidea ere onartzen zuela adierazteko, berriz, Aita Sainduaren "camarero" ohorezko titulua eta "monseñor" deitura egin zizkion opari Erromak.

Laurent Diharassarrik bazuen, beraz, euskaraz idazteko eta etxeko ilobak bisitatzeko aukerarik eta denborarik. Maddi neskatoak zazpi urte zituela, osaba apaizak izan baitzuen diputatutarako hauteskundeetara aurkezteko adorerik eta astirik ere. Bere kanpainan euskararen aldeko aldarrikapena egin zuen, jakina. Elizaren, erlijioaren, ohitura zintzoen eta euskararen aldeko langile saiatuaren gerizapean hazi zen, beraz, Maddi.

Apaizek politikan dituzten eskubide eta eginkizunaz, erlijioaren historiaz, kristautasunaz, San Antonioren bizitzaz eta abarretaz idatzi zituen





liburuak Laurent Diharassarrik. Baina poesiarik ere egin zuen. Hain zuzen, Maulen saritua suertatu zen *Madalen Larralde*. Konfesatzera Berara etorri zelako 1794an hil zuten hamabost urteko Maddalen Larralde neskatxa saratarrari buruzko poesia da. Bederatzi urte bazituen ordurako Maddik.

Osabarenaz gainera, aita Donostiaren eraginik ere izan zuen Maddi Ariztiak, Lekarozko kaputxino famatua askotan joaten baitzitzaion kantuek eta ipuinak ikastera. Jaso ere jaso zuen kantu eta ipuinik aita

Donostiatik Lehetxipian, Maddiren ahotik ez ezik, baita bere ahizpa Adrienneren eta beren izeba Adeleren ezpainetatik. Izan zuen, jakina, herremanik Joxemie Barandiaranekin ere, Francori ihesi, auzo bilakatu baitzitzaion. Egunero igarotzen zen Ataungo jakintsua Lehepitxitik, elizara bidean.

Maddi Ariztiak (1887-1972)  
bederatzi seme-alaba izan zituen.



Maddi Ariztiak aita Donostiari idatzitako gutuna, 1933ko urriaren 16an.

34.—MAYI ARIZTIA  
Nere Aita ona :  
Ongi ethorri izanen zare, segurki, nahiko duzunean edo obe-  
ki erateko, ahalko duzunean ethorri Lehetxipiat, aspaldiko par-  
tez!... Agian zorbeit onik eginen duzu sipatu chaharrarekin...  
Eta bethi, guretat, atsegin handi bat izanen da zure gu-  
tarteon ikustea eta gure indar ahalez zure laguntzea, bibotz  
guziz.  
Beraz, ikus artio, Jainkoak nahi badu, eta gure agurrik ho-  
berenak.  
MAYI ARIZTIA  
Ahalik lasterrena, gaztia nezazu zoin egunez eta zer tenorez  
etorriko zaren hunat, jakinaraz diezadan kantari chaharrari...

# 10

Ezkondurik, bederatzi seme-alaba izan zituen Maddik. Seminarioko irakasle eta Baionako katedraleko kalonje den Jean Ariztia, besteak beste. Etxeko eta baserriko lanik ere bazuen, jakina. Hala ere, idazteko eta irakurtzeko ateratzen zuen astirik. Euskal etheen egituraz, zurajeaz eta abarretaz zaletua zenez, "Euskal Etxe Zaharrak" izan zen 1933an Donostian eman zuen hitzaldiaren gaia. Bere sortetxean ez ezik, Sarako etxe askotan ere Maddiri esker bistaratuak dira harlanduak eta hormetako zurajea.

Urte bete geroago, berriz, *Amattoren uzta* izeneko ipuinak hasi zen argitaratzen Gure Herria aldizkarian. Geroztik liburu batean ere argitaratu zituen. Baita Egan aldizkarian ere, 1949an, *Bi ohoinen ixtoria*. Marie Diharassarri, *Maddi Ariztia*, 1972ko irailean hil zen.



*Amattoren uzta* 1934 urtean argitaratzen hasi zen Gure Herria aldizkarian.



Pedro Ariztiarekin 1910ean ezkondu zenean Maddi Ariztia bilakatu zen Marie Diharassarri.

Julia Klaudia Gabilondo Arruza-Zabala Mungian jaio zen, Trobika kaleko 12an, 1902ko urtarrilaren 29an. Santa Maria eta San Pedro Elizan bataiatu zuen, hil horren azken gunean, Frantzisko Abaitua erretoreak.

Joan Gabilondo Azurmendi Zegamako seme medikuaren eta Idoia Leonor Arruza-Zabala Etxaburu guenestarraren alaba zen. Aitaren aldeko aitona zegamarra zen; amona, berriz, idiazabaldarra. Amaren aldekoak, ordea, mungiarra eta guenestarra ziren.

Julia Gabilondo eta bere ahizpa Inaziak denda zuten Mungian. Juliak, agi denez, denda bezain maitea zuen euskaraz irakurtzea eta idaztea. Lauaxetaren lagun egin zen, gainera. Izan ere, Esteban Urkiaga, Laukizen jaio bazen ere, oso ttikia zela Mungiaratu zen gurasoekin batera. Lauaxetaren lagun izateak, berriz, euskal sua eta euskaraz idazteko gaitasuna gehitu zizkion.

11



Julia Gabilondo, *Maite* idazleak asko idatzi zuen *Euzkadi* eta *Eguna* egunkarietan.

Gerra garaian, bestalde, hamaika bisita egin zien bi ahizpa dendariei Augustin Zubikarai ondarrutarrak. Izan ere, *Eguna* egunkarian sarri idazten zuen *Maite* izenordeaz, lehen orrian askotan gainera. Abertzaletasunaren alde, gudarien alde, emakumezkoek gizartean eta aberrigintzan zuten eginkizunaz eta abarretaz idazten zuen.

Julia Gabilondok 1930ean irabazi zuen, Donostian, *Euskal-Esnaleak* antolatutako saria, *Nor da kementsuagoa, gizonetzkoa ala emakumezkoa* gaiaz. Julia Gabilondok bizkaieraz idatzi zuen, jakina, nahiz eta aita giputxa izan.

Gerra ondoan, Beasain eta Lazkaon aldi bat egin eta Donostiara aldatu ziren. Julia 1994ko urtarrilaren 1ean hil zen.



Julia Gabilondo mungiarrek sarri idatzi zuen *Eguna* egunkarian *Maite* izenez.

Rosario Teodora Artola Elizetxea Donostian jaio zen 1869ko maiatzaren 7an. Seme-alabetan gazteena, Santa Maria Elizan bataiatu zuten jaio eta bi egunera. Beste senide guztiak, berriz, Juan Ramón Antonio, Frantzisko Gregorio, Pepe eta Manuel, San Bizenten bataiatu zituzten.

Eta kastatik, kondea, Ramon Artola Larrañaga tolosarraren alaba da Rosario. Izan ere, Ramonek, Lezoko Manuela Elizetxearekin ezkondurik, 1858ko azaroaren 23an, Donostiako Fermin Caibeton kalean zabaldu zuen linterneritzako eta pintoretzako lantokia.

Oso gazterik hasi zen Ramon euskaraz idazten, Manterolaren *Cancionero Vasco* izenekoan eta Euskal-Esnalea aldizkarian. *Jendeak buruz zekizkien Sagardoari* eta *Iltzeko zezenari* eskainitako bertsoak. Aita Zabalak berrargitaratu zituen *Auspoa* liburutegian Ramon Artolaren *Sagardoaren graziya ta beste bertso asko*.

Baina Rosariok aita ez ezik, anaia Pepe ere oso ezaguna zuen. Oso gazterik hasi zen *Euskal-Erria* eta orduko beste aldizkarietan idazten. Usandizagaren *Mendi-mendiyan* kantuaren hitzak ere Peperenak dira.

Eta etxeak, habea. Ramon Artolaren anaia Frantziskoren odolekoak dira Fernando Artola Sagarzazu, *Bordari* olerkaria eta beronen seme Txomin kantaria.

Horrelako aitabitxiek bide laua aurkitu zuen Rosariok. Hogei urterekin idatzi zuen, 1889an, *Euskal-Erria* aldizkarian *Nere gitarchoari* poema. Geroztik etengabe argitaratu zituen bere olerkiak eta bertsoak, 1918ra bitartean bederen.



Rosario Artola (1869-1950)

Saririk ere irabazi zuen: Oñatin, 1902an, *Arantzazuko Ama Birjiñari* izenekoarekin; Irunen, 1903an, *Zeruetako erregiña* izenekoarekin; Ordizin, 1904an, *Umezurtza* olerkiarekin; baita Hernanin ere, 1909an; 1918an, berriz, Donostian, *Aitona* eta *illoba* izenekoarekin.



Idazle-kastakoa da Rosario: Ramon Artolaren alaba eta Peperen arreba.

Goxo eta bizi adierazten ditu bere bizipenak. Eguneroko bizitzako gaiak ditu kantagai: Jainkoa, Amabirjiña, gitarra, loreak, txoriak, udaberria, udemugak, nahigabeak eta pozak, saguak, katuak, axeriak, bere senideak eta euskaldun ospetsuak: Antonio Arzak, Joxe Zapirain, Migel Salaberri, Martzelino Soroa, Raimundo Sarriegi eta abar.

Laurogei urte ondo beteak zituela hil zen Rosario Artola, 1950eko urtarrilaren 5ean.



Gitartxoari poema.

Ignazia Pradere Arruti da *Euskal-Esnalea* saririk gehien irabazten duen emakumea. *Zarauz eta bere kondaira* izeneko lanarekin lehen saria irabazi zuen Zarautzen, 1912an. Irabazi ere, Azkue, aita Intza, Jose Manuel Etxeita, Ramon Inzagarai eta abar aurkeztu ziren lehiaketan.

Hurrengo urtean hirugarren saria irabazi zuen Tolosan, *Guipuzcoaren kondairarako Gorosabel-dar Pablo jaunak artu zituban nekeak* lanagatik. Hondarribian, berriz, bigarren saria merezi izan zuen, 1914an, Gipuzkoa'ren lurrazalbena izeneko geografia lanagatik.

Lan hauek, jakina, *Euskal-Esnalea* eta *Euskalerraren alde* aldizkarietan argitaraturik daude, Ignazia Pradere Arruti sinaduraz. Hala ere, ordea, Blas anaia apaizarenak ote diren susmorik bada.

Euskara ez ezik, gaiak ere Blasek erabili ohi zituenak dira. Izan ere. Oiartzun eta Bergarako seme ospetsuak, Peñafloida kondea, Tolosako herriaren izenak eta honelakoak dira Blas Praderek gogokoen dituen ikerlanak. Bestalde, Zarauzko lehiaketara ez, noski, baina Tolosara eta Hondarribira bere izen-deituraz izenpetutako hiru lan bidaltzen ditu: *Tolosa'ko erriyaren izenak lenago eta orain, Aundiagoai eta aginbideai zor zayoten begirunea eta Edaleentzako gogoangarriak*. Blas, oñatiarra izanik ere, Donostian bizi eta hil zen 1923ko abuztuaren 4an, 72 urterekin. Eta Ignazia deiturazkoak ere Donostiatik bidaliak izan ohi ziren. Horregatik jo ohi da Ignazia ere donostiarzat.



Ignazia Pradereren idazlanetan Blas, anaiaren eskua sumatzen da.


# 16

Eta gerta daiteke, zaharrenak oñatiarrak izan arren, besteak ez izatea. Juan Pradere Oñatiko ezkontza eta jaiotza liburuetan agertzen denez, Frantziako Garona Garaiko Arguinoz herritik etorri zen Oñatira galdaragintzara. Erostarbe baten alarguna, eta bi alaben, 11 eta 8 urteko Maria Juanaren eta Estefaniaren aita, Elgoibarko Manuela Lorenza Arrutirekin ezkondu zen 1851ean. Hiru seme-alaba, behintzat, izan zituzten: Blas, 1852an; Juana Bautista, 1854an; Luzia, 1856an. 1856ko erroldan agertzen denez, San Anton kaleko 24. zenbakian bizi ziren.

Baina Ignaziaren aztarrenik ez da agertzen Oñatiko liburuetan. Beste asko bezaiaxe, amaren sorterrian jaiotze zen, bada? Elgoibarko agirietan ere ez da agertzen, ordea. Santi Onaindiaren ustez arrebaren izenez baliatzen zen Blas.

Nik ez dut Onaindiak bezain garbi ikusten. Hala balitz, izan ez duen arreba baten izen-deituraz sinatuko al zituzkeen? Zergatik ez erabili Juana Bautista edo Luzia? Eta izenordearen premiarik ere ba al zuen, bada, beste lanetarako izengoitirik erabiltzen ez zuenak? Sariketara lan bat baino gehiago bidaltzeko? Hondarribira ez al zituen, bada, bi lan bidali Blas izenez? Nik, ordea, ez dut mixterio hau argitzeko modurik izan. Dena den, hor daude *Euskal-Esnaela* eta *Euskalerrriaren alde* aldizkarietan Ignazia Pradere Arrutik izenpetutako lanak.

Ignazia Praderek *Euskal Esnaela* aldizkarian idatzitakoaren puska.



Pradere Garona Garaiko Arguinoz herritik etorritako abizena da.



Maistratza, ia bizi osoan, Azkoitian egin zuelako eta sariketarako lanak hortik bidaltzen zituelako azkoitiartzat jotzen bada ere liburuetan, aizarnarra zen Rufina Azkue. Elizaren ondoko Kantoiko etxean, serora, sankristau eta organista familian jaioa, 1898ko abuztuaren 19an. Geroxeago ere gogoan zituen jendeak Tomax organista eta Fermiña serora.

Lau seme-alaba izan zituzten Kantoiko Maurixio Azkuek eta Fermiña Lizasok. Rufinak maistra karrera egin zuen; Segundo jesuita eta Jesus apaiz egin ziren. Tomax, seme zaharrena, etxean geratu zen, oinordeko. Rufina Azkuek 1928-1930 aldi horretan idatzi zuen *Euskal-Esnalea* aldizkarian, emakumea eta bere zoriona eta emakumea eta euskara gaiei buruz, batez ere. Saria ere gai horietako batekin irabazi zuen Donostian, 1928an.

Gerra ondoan ere, ordea, euskaraz ematen zizkien bere azalpenak Azkoitiko bere eskolameei. Francoren irudia, berriz, inspektorea zetorreanean bakarrik jartzen zuen gelan. Eta jakina, umeei ez zien falangeko eta "movimiento"-ko dotrinarik sekulan irakatsi.

Azkoitian bizi arren, asteburuero etorri ohi zen Aizarnara. Mariaren Alaben buru ere izan zen aldi batean. 1972ko otsailaren 11an hil zen.

17



Rufina Azkue Azkoitiko herri-eskolako maistra izan zen ia bizi osoan.

Oiartzunen jaio zen 1906ko apirilaren 4an Pilar Lekuona Etxabeguren. Bederatzi anai-arreba izan ziren. Martin ezagunenak, euskal kulturaren eta hizkuntzaren alde egindako lanengatik, gehienbat. Juan Mari, Andoni eta Julen Lekuona idazle, poeta eta kantarien izeba da, gainera Pilar; eta garai batean kazetari ezaguna izan zen Ramon Zapirainen ama.

Eusko Alderdi Jeltzalea ez ezik, indarrean zen Oiartzunen Emakume Abertzale Batza bere areto eta guzti. Oñatibiarrek ez zeuden geldirik, jakina. Baina Elbira Zipitria ere han joaten zitzaien igande arratsaldeetan sua piztera. Emakumeen batzokia inauguratu zen egunean *Txatxon Piperri* opera kantatu zuten. "Gure Elbiraren ereintzak fruitu onak eman zituen Oiartzunen" gogoratu ohi zuen Manuel Lekuonak.

Hemen, ordea, idazle alderdia bakarrik ari gara nabarmentzen. Horretan, berriz, Pilar Lekuona nabarmendu zen, beste batzuen artean, Josefa Martiarena eta abarren artean, astero-astero argitaratzen baitzituen herriko kronikak Argia astekarian. Oiartzunen, Aiako Harrian, egin zuten Argia-ko berri-emaileek ere

bilera gerra aurrean. Maria Aristizabal, Pilar Sansinenea, Arantxa Munita eta abar bildu ziren Elbira Zipitria buru zutela.

Argia astekarian baino lehen hasi zen, ordea, Pilar Lekuona *Euskalerraren alde* aldizkarian idazten. Baita saririk irabazi ere, behin baino gehiagotan, Josefa Martiarenarekin batera.

Pilar Lekuona guda garaian alargundu zen. Lagunartetik eta *Argia*-ko berri-emaileen artetik ezagutzen zuen Anastasio Zapirainekin ezkondu zen berriro 1940an, Lezora. Lau seme-alaba izan ditu.

Baina ez guda garaiko nahigabeek, ez gerra ondoko bizimodu gogorak eta ez umeak hazi beharraren nekeek ez diote Pilar Lekuonari idazteko

zaletasunik kendu.

Laurogeitaka urterekin ere urtero idatzi izan du Oiartzungo aldizkarian, herriko kontu zahar eta kondairari buruz, batez ere.



Manuel eta Martin Lekuona apaiz euskaltzaleen arreba da Pilar.

Gipuzkoarrak dira *Euskal-Esnalea* eta *Euskalerrriaren alde* aldizkarietan idazten duten emakumezko asko. Zoritxarrez, ordea, ez da agertzen zein herritakoak diren. Hizkuntzaren aldetik Beterrirako joera dute gehienek, Donostia alderakoa alegia, "buruba", "zeruba", "ogiya", "Antoniyo" eta abar idazterakoan.

Petra Belaustegi eta Maria O. Artiñano dira *Euskal-Esnaleak* saritutako lehen bi emakumeak. Ametsa ipuinarekin irabazi zuen ohorezko aipamena Petra Belaustegik, Donostian, 1909an. Maria O. Artiñanok, berriz, *¡Ezin aztu!* ipuinarekin merezi izan zuen ohore bera.

Maria Dolores Elizondok 1910ean irabazi zuen, *Maixuari lanarekin*, Azkoitian. Urte horretako *Euskal-Esnalea* aldizkarian, ordea, ez zaigu nongoa zenik adierazten.

Rosario Aikain Esnaoiak Donostian irabazi zuen, 1818an, *Kalbario'ko Mendiya* izenekoarekin.

Donostian irabazi zuen Margarita Unzaluk ere, 1924an, Txindoki'ko Marie ipuinarekin. Gaiagatik eta hizkeragatik Goierrikoa dirudi Margarita Unzaluk. Urte horretako *Euskal-Esnalea* aldizkarian argitaratu zuen ipuin hori.



Gizonezkoak nagusi badira ere, gero eta emakume gehiago ari da idazletzan, 1930eko euskal idazleen argazki honek adierazten duenez.

Donostian irabazi zuen Joakina Garaialdek ere saria, emakumearen zorionari buruzko gaiarekin. Eta lehengoetan nongoak direnik agertzen ez bada ere, oraingo honetan Tolosakoa dela adierazten zaigu. Nik, ordea, ez dut agirietan horren izenik aurkitu.

Azkenik, aipa ditzadan *Rochil-en sakeltxo*a elkarrekin burutu zuten Bittori Arrieta -Bittoriano ote? Hala agertzen baita zenbait lekutan-, Eustakia Olaso, Josefa Aranburu, Maria Aristegieta eta Kontsuelo Aranburu.

Dena den, oraingoz argibide gehiagorik ez badugu aurkitu ere, merezi zuten aipamen bat, bederen, *Euskal-Esnalea* eta *Euskalerraren alde* elkarte eta aldizkariak emakumezkoa literaturara erakartzen egin zuten lan eskergaz kontura gaitzen. Zoritxarrez gerrak eta ondoko larderiak zapuztu zuten orduan ereindako hazia.



Petra Belaustegik eta Maria O. Artiñanok *Euskal-Esnalea*-ren *Esku-Egundiya*-n idatzitakoen puskak.